



Usurbilgo Udala

2025/10/30

2025EKO URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Jon Mikel Azpiazu Zubeldia eta Oskar Santamaria Picabea.

Usurbilen, 2025eko urriaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA:

1.1.- 2025EKO IRAILAREN 25EKO BILKURA.

Batzarkideek 2025eko irailaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2025/10/30

1.2.- 2025EKO URRIAREN 8KO BILKURA.

Batzarkideek 2025eko urriaren 8ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2025EKO IRAILAREN 22TIK URRIAREN 24RA (2025/1214-2025/1352).

Alkatetzak 2025eko irailaren 22tik urriaren 24ra bitartean (2025/1214-2025/1352) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- KONTU EMATEA: 3. HIRUHILEKO ORDAINKETEN BATEZBESTEKO EPEA (OBBE).

Batzarkideei 3. hiruhileko Ordainketen Batezbesteko Epearen (OBBE) berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

4.- KONTU EMATEA: 3. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.

Batzarkideei 3. hiruhileko Aurrekontuaren Exekuzioaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

5.- KONTU EMATEA: KALD005 KREDITU ALDAKETA.

Batzarkideei kreditu transferentzien modalitateko aurrekontuko KALD005 kreditu aldaketaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

6.- KALD006 KREDITU GEHIGARRIA ONARTZEA (2025EKKA0006).

Puntu hau aurretik batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez gai zerrendan sartzea berretsi eta tratatzea onartu dute.

Batzarkideek proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2025eko abuztuaren 27an Gernika kalea 9 zenbakian kokatutako Oiardo Udal Kiroldegian sutea gertatu zen azpiegituraren gune hezean kalte larriak eraginez. Berreraikuntza-obrak premiazkoak dira kirol-zerbitzu publikoa berrezartzeko eta beharrezkoa da obrak kontratatzen hasteko aurrekontu-kreditu nahikoa izatea.



Usurbilgo Udala

2025/10/30

Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 4300.622.342.00.01 2025	Oiardoko Birgaitzea suteagatik	185.000,00	478.977,52	663.977,52
Guztira		185.000,00	478.977,52	663.977,52

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 2000.870.934.00.01 2025	Diruzaintzako gerakina: gastu orokorrak	663.977,52
Finantzaketa guztira			663.977,52

Kodeen azalpena:

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- Sarrera berri edo handiagoak.
- Kredituen baliogabetze baja.
- Kreditu eragiketak.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin du.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Udalbatzarrak aho batez onako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehena: 663.977,52 kreditu gehigarria behin betiko onartzea.”

Horrela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

2025/10/30

7.- USURBILGO HERRI BARRUKO EDO HERRIARTEKO GARRAIORAKO 2026 URTERAKO PROPOSATZEN DIREN AUTO-TAXI TARIFAK ONARTZEA (2025ZTAX0002).

Batzarkideek Lurraldea batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Aurrekariak

2024 urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuaren sorrera onartu zuen, turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko (*Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, 2024ko abenduaren 23ko Foru Aginduan eta 2024ko abenduaren 30eko GAO 250 zenbakian argitaratua*).

2024an sortu zen Eremuan, hiru egoera bereizten dira hiri-tarifen aurreko urteetako bilakaeran: Donostiakoa, Buruntzaldeako udalerriena eta Oarsoaldeako udalerriena.

Donostian udal-lizentzia duten 308 taxi daude.

Buruntzaldeako Erregimen Bereziko Zonaldea 2006an sortu zen. Gaur egun, eskualdeko udalerriak diren Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil atxikituta dauden zonaldeko hitzarmenaren baitan funtzionatzen dute. Besteak beste, tarifen bateraketa eta taxilariek udalerrietan eman beharreko zerbitzuak barneratzen ditu hitzarmenak. Buruntzaldeako Erregimen Bereziko zonaldean 40 taxilarik parte hartzen dute.

Oarsoaldeako Erregimen Bereziko Zonaldea 2006an sortu zen. Gaur egun, eskualdeko udalerriak diren Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia atxikituta dauden zonaldeko hitzarmenaren baitan funtzionatzen dute. Besteak beste, tarifen bateraketa eta taxilariek udalerrietan eman beharreko zerbitzuak barneratzen ditu hitzarmenak. Oarsoaldeako Erregimen Bereziko zonaldean 65 taxilarik parte hartzen dute.

Hiri barruko auto-taxi zerbitzuaren tarifak berrikusteko eskaria aurkeztu diete sektoreko elkarteek Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua (Donostialdeko EBEa, aurrerantzean) osatzen duten udalei.

Araudia

2010eko ekainaren 15eko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Agindua, 2. atala, hiri barruko auto-taxi eta auto-turismoko zerbitzuaren tarifak berrikusteko prozedura (2010eko uztailaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea eta Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretua.



Usurbilgo Udala

2025/10/30

Kontutan harturik

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuan turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoari buruz 2024ko abenduaren 30eko GAO 250 zenbakian argitaratutako ebazpenak dioenez, Donostialdeko EBE osatzen duten udalherri guztietan tarifa bera ezarriko da zerbitzuaren arabera.

2025eko urriaren 14ko Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko Jarraipen Batzordeko tarifen akordioari buruzko ziurtagiria.

Gauzak horrela, Lurraldea Batzordeak, 2025eko urriaren 21ean egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Iratxe Begiristain, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, hau da, aho batez, proposatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

BAT: Usurbilgo herri barruko edo herriarteko garraiorako 2026 urterako proposatzen diren ondorengo auto-taxi tarifak ONARTZEA:

1. tarifa. Gutxienekoa: 6,414243
1. tarifa. Egindako kilometroko: 0,900812
1. tarifa. Itxaronaldia orduko: 26,15302

2. tarifa. Gutxienekoa: 7,431496
2. tarifa. Egindako kilometroko: 1,397594
2. tarifa. Itxaronaldia orduko: 34,870693

5. tarifa. Gutxienekoa: 7,447148
5. tarifa. Egindako kilometroko: 1,446511
5. tarifa. Itxaronaldia orduko: 36,091084

Ondorengo kasu hauetan aplikatzen delarik tarifa bakoitza, hiri-zerbitzuetan:

1. tarifa: lanegunetan, 07:00etatik 22:00etara.
 2. tarifa: larunbat, igande eta autonomia-erkidegoan eta toki-araudian jaieguntzat jotako egunetan eta udal bakoitzak sektorearekin adostu eta gehitutako zenbait datetan, zein lanegunetan 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara, betiere 5. tarifa aplikagarria denean izan ezik.
 5. tarifa: ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta dagozkion jaiegunetako 07:00etara.
- Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

BI: Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko arduradunari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onespenera eman dezan.



Usurbilgo Udala

2025/10/30

HIRU: Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei (Asier Ubide Areso eta Anjel Biurrun Garnica), G.TAXI Gipuzkoako Taxisten Elkarteari, AGITAX Gipuzkoako Taxisten Elkarteari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Departamentuari bidaltzea.”

Horrela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO USURBILGO UDALA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEA (2023HITZ0009).

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela izan da:

“1.- AURREKARIAK

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

Aurrekoa ikusita, Diputatuen Kontseiluak 2021eko azaroaren 30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmen eredu onetsi zen.

Erabaki horren hirugarren puntuan xedatutakoaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari (gaur egun, Zainketetako eta Gizarte Politiketako



Usurbilgo Udala

2025/10/30

Departamentua) ahalmena eman zitzaion dagozkion hitzarmenak sinatzeko, bai eta beharrezkoak ziren gainerako kredituak baimentzeko ere, dagozkien urterokoei zegozkien ekitaldiko aurrekontu orokorrak indarrean zeudenean.

Horren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuak zegozkion hitzarmenak sinatu zituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko 78 udalekin eta mankomunitateekin. Hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako udalerrietan etxeko laguntza zerbitzua emateagatik foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.461,00 eurotan finkatu zen.

Hitzarmen horiek, hamalagarren klausulan ezarritakoaren arabera, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituzten ondorio ekonomikoak, eta aurreikusi zen 2023ko abenduaren 31ra arte egotea indarrean.

Kontuan izanda etxeko laguntza zerbitzua segidazko traktuko zerbitzua dela, hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzeko aukera ezarri zen, lau urteko hasierako iraupena agortu arte. Ahalmen hori baliatuz, Diputatuen Kontseiluak 2023ko abenduaren 12ko bilkuran hartutako erabakiak jada aurreikusi zuen urte natural batez ondorio ekonomiko horiek zabaltzea, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluak, 2024ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, bederatzi hilabeteko beste behin ondorio ekonomikoak zabaltzea onetsi zuen, hasierako gehieneko indarraldia (lau urtekoa) agortu arte. Ondorio ekonomikoen zabalpen horrek 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia hartzen zuen, eta aplikatu zen alde sinatzaileek indarraldia amaitu aurretik adostu zitzaketan luzapenei kalterik egin gabe, hitzarmenaren 14. klausulak xedatutakoaren arabera:

“Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta hasierako lau urteko epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.”

Hala, lau urteko hasierako indarraldia 2025eko irailaren 30ean amaituko da. Puntu honetara iritsita, eta zerbitzua ematen jarraitzeko, egokitzat jotzen da hitzarmena urtebetez luzatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era. Luzapen hori amaituta, alderdiek beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere hitzarmenean aurreikusitako beste lau urteko gehieneko aldia errespetatzen badute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan laguntza zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.463,00 eurokoa izango da. Hamabi hilabeteko zabalpen berriari dagozkien ordainketak hiruhileko lau likidaziotan ordainduko dira.

Guzti hori ikusirik, Herritarrek Batzordeak, 2025eko urriaren 22an egindako bilkuran, bost aldeko botoekin (Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu, Xabat Beloki, Ivan Iriondo eta Petra Romero) proposatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

2025/10/30

Lehenengoa: Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena luzatzea.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko.

Hirugarrena: Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki hauen berri ematea.”

Horrela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- AZAROAK 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA (2025IMOZ0009).

2025eko urriaren 22an egindako Herritarrak batzorde informatzailean, Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko egunari buruz aurkeztutako adierazpena aztertu zuten. Batzarkide guztien (Agurtzane Solaberrieta, Ivan Iriondo, Jon Mikel Azpiazu, Petra Romero eta Xabat Beloki) aldeko botoarekin adierazpena bere egitea proposatu zioten Udalbatzarrari.

Aipatutako Herritarrak batzorde informatzailearen irizpen proposamena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako adierazpena onartu du aho batez:

“AZAROAK 25eko ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Indarkeria Matxista Ezabatze Nazioarteko Eguna dela eta, gogora ekarri nahi dugu Indarkeria matxistak beldurrezko eta lotsazko ingurunea sortzen duela, indarkeria jasaten dutenak bakartzeko eta isilarazteko joera du, eta biktimagileen zigorgabetasun-sentsazioa areagotzen du. Izan ere, sarerik ez izateagatik eta komunitatean sustraituta ez egoteagatik, egoera horiek areagotu egiten dira isolatuago egon daitezkeen emakumeen artean, besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatuetan daudenak, desgaitasuna duten emakumeak, emakume atzerritarrak eta bestelako baldintza bereizleak dituztenak.

KOMUNITATEAK beste pertsona batzuekin konektatzen gaitu, eta babes-loturak garatzea eta narratiba komunak sortzea ahalbidetzen du. Horregatik, **komunitateak emakumeen**



Usurbilgo Udala

2025/10/30

aurkako indarkeria matxista prebenitzen lagun dezake, eta berdintasunean oinarritutako harreman-inguruneak sortu, diskriminazioaren eta indarkeriaren adierazpenek tokirik izan gabe. Auzokide, lagun edo kuadrillen arteko harreman estuak **goiz ohartaraz dezake** indarkeria-egoera gertatzen ari dela.

Komunitate feministak, hurbiltasunetik eta sororitatetik, indarkeria jasaten ari diren emakumeak gorputzez babes ditzake, baita enpatia adierazi eta gertuko bide-laguntza ere eskaini. Halaber, jasandako indarkeria matxistari aurre egiten eta onera etortzen lagun dezake, eta egoera horietan bere erritmoak eta erabakiak errespetatu ditzake.

Tokiko komunitateak biktimen erreparazioa babes dezake. Horretarako, eragindako kaltea aitortu eta indarkeria matxista salatu dezake, eta publikoki biktimarekiko eta haren ingurukoekiko elkartasuna eta gaitzespena adierazi.

Udalok erantzukizun zuzena dugu, komunitateak sustatzeko non auzotarrak, taldeak eta koadrilak indarkeria matxistaren aurrean erne egongo diren, eta indarkeria matxista pairatzen dutenak hartu, integratu eta babestuko duen bizitza komunitarioa bultzatzeko. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimenzako komunitate erreparatzaileak sustatzeko erantzukizuna dugu.

Horregatik, Usurbilgo Udalak honako jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartu du:

- Hurbiltasun-sare lokalak indartzea: topaguneak, komunitate-jarduerak eta tokiko elkarten bizitasuna zaindu, pertsona guztiak eta, bereziki, emakume eta neskarik zaugarrienak konektatzeko.
- Kanpotik iristen diren pertsonentzako harrera- eta integrazio-programak garatzea, tokiko komunitatearekin lotzea ahalbidetzeko, bereziki emakume eta neskegan arreta jarritz.
- Hezkuntza-, osasun-, kultura- eta aisialdi-inguruneetan laguntza-sareak sustatzea, zerbitzu publikoak taldeekin, elkarteekin eta berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan elkarri laguntzeko ekimenekin konektatzeko.
- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak garatzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista hutsaltzen edo legitimatzen duten diskurtsoak eta jarrerak desaktibatuzko, bereziki konplizitate matxisten inguruetan.
- Indarkeria matxistako kasuen aurrean herritarren mobilizazioa sustatzea, indarkeria gaitzesteko eta biktimizekiko elkartasuna adierazteko.
- Kanpaina eta kuadrillekin aliantzak garatzea sexuen arteko harreman osasungarri eta bidezko kodeak sortzeko, dibertsitate osoan, kode matxistak eta misoginoak hausteko.
- Tokiko emakumeen mugimenduei eta mugimendu feministari laguntzea eta haiekin koordinatzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak haien borrokan babesa emateko jarduerak garatzeko.”

Horrela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra



Usurbilgo Udala

2025/10/30

Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Xabier Otxoa zinegotziak kiroldegiko sutearen harira esan du igerilekua ez dela erabilgarri egongo urtebete inguru eta aurreko batean komentatu zutela igerilekura joan ezin duten erabiltzaile horientzat beste aktibitate batzuk eskainiko zirela. Aktibitate horietara joan nahi ez duten erabiltzaile horientzat bonifikazio, kuota itzulera edo antzeko zerbait aplikatzea planteatu ote den galdetu du.

Alkateak erantzun dio ofizioz ez dela kuotarik itzuliko, baina norbaitek eskatzen badu kuota itzultzeko edo baja emateko, hori tramitatuko dela.

Bestalde, alkateak adierazi du gaurko plenoaren ondoren egungo egoeraren berri emango zaiela kirol abonatuiei.

Xabat Belokik gaineratu du kontutan hartu behar dela Buruntzaldea osatzen duten udalen arteko abonamendua, hau da, beste herrietako instalazioak, tartean igerilekuak, erabiltzeko aukera ematen duena. Era berean, mugiment kirol txartelak ere beste herrietako instalazioak erabiltzeko aukera ematen duela zehaztu du.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:00etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.